

Regina Arrieta Soraiz

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

EGB-135

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2023-04-25

- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Ikasketak erdaraz

- **Erref:** EGB-135/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Maalako mojetan ibili zen, señorita Anitarekin gero eta ondoren Mendaroko mojetan batxilergoa egin zuen. Dena erdaraz zen, euskaraz bazekiten mojak baziren arren.

2. Erdarazko liburuetan euskarazko orriak itsasten

- **Erref:** EGB-135/004
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:03:53. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Ikastolan irakasle ibili zenean, gogoan dauka euskarazko idatziak erdarazko liburuetako orrialdeetan itsasten zituztela.

3. Mendaroarren eta baserritarren, euskaraz gehiago

- **Erref:** EGB-135/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Maalako mojak gogorrangoak zirela aipatzen du. Mendaroko neskek euskaraz elgoibartarren baino gehixeago egiten zutela dio. Baserritarren gutxi hitz egiten zutela eta barre egiten zutela kontatzen du.

4. Dirudunak erdaldundu

- **Erref:** EGB-135/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara ez dugula euskaldunok prestigiozkotzat hartu uste du. Aita Bartzelonako Musikaren Lizeora joaten zenean, opera entzutera, denak katalanez entzuten zituela kontatzen zien. Euskal Herrian, dirua egiten zuena erdaldundu egiten zela azaltzen du.

5. Etxean kantuan

- **Erref:** EGB-135/007
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:10:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita musikazalea zuen. Boga-boga, Aitorren Hizkuntz Zaharra, gabon kantak, San Juanetakoak... abesten zituzten etxean. Ahoko soinua jotzen zuen aitak. Pantxoa eta Peio eta halakoen diskak bazituzten etxean.

6. Kanturako zaletasuna, tabernetan eta mendian

- **Erref:** EGB-135/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Tabernetan mutilek abesteko ohitura zeukaten eta neskak ere gerturatzen ziren. Emakumeek kopa gozoak edaten zituzten. Patxi Agarrerekin sarri mendira joandakoa da; hark oso ondo abesten zuela dio, eta elkarrekin abesten zutela hainbat ahotsetara.

7. Hasieran `Bereluma´, ondoren `Lurgabe´ musika taldea

- **Erref:** EGB-135/009
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:15:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Lau lagunek Odeiko jaialdian parte hartu zuten. Disko bat atera zuten kanta batzuekin. Hasieran bertako kanta abesten zituzten; "Eurovision" lehiaketa irabazi zuen kanta Juan San Martinek euskaratu zien. Lau nesketako batek taldea laga zuen, mutil-laguna topatu zuenean. Hasieran *Bereluma* taldea izan ziren eta ondoren *Lurgabe*. 1969an atera zuten lehen diskoa.

8. Miren Vallejorekin euskarazko kanta, dantzak eta antzerkia

- **Erref:** EGB-135/010
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:15:16. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ohitura handia zegoen kanturako, bereziki jatorduen ondoren lagun artean. Miren Vallejok erakusten zizkien kanta, dantzak eta antzerkia, euskaraz. Saioak non egiten zituzten kontatzen du.

9. Felix Etxeberriak Jon Oñatibia eta Patxi Altuna ekarri zituenekoa

- **Erref:** EGB-135/011
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Felix Etxeberria "Parapan" nekaezina zela dio; Jon Oñatibia euskara ikasteko liburua atera zuenean, Elgoibarrera gonbidatu zuen Jon bertako hainbati erakusteko. Jende bila ibiltzen zela dauka gogoan. Patxi Altunarekin gauza bera egin zuen Felixek.

10. Apaizen lana euskararen alde

- **Erref:** EGB-135/012
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Parrokian antolatzen ziren gauza asko. Apaizek euskararen alde egindako lana aitortzen du. Ikastolaren legalizazioa ere apaiz baten izenean egin zela dio.

11. Eguberri eguneko kalejiran dantzan

- **Erref:** EGB-135/014
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Nesken dantza taldeak oso gutxitan ikusten zituzten. Eguberri egunean kalejira egiten zuten eta urte askoan parte hartu zuen dantza eginez. Hainbat urtean erakusten ere jardun zuen. Jaiotza umeek osatzen zuten. "Artzai buruzuri bi" eta arku-dantza dantzatzen zituzten.

12. Anaiek euskarazko izenak hartu zituzten

- **Erref:** EGB-135/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:26:33. **Bukatu:** 00:28:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Scoutetan ez zuen parte hartu; bere anaiek bai. Bere anaiek erdarazko izenak zituzten, Juan eta Pedro, baina euskaratu egin zituzten eta euskaraz esanda bakarrik erantzuten zuten. Euskararekiko mugimenduak bete-betean harrapatu zituen bere anaiak.

13. Gurasoak seme-alabek euskaraz egiteko ahaleginean

- **Erref:** EGB-135/016
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:28:13. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Gurasoek ahal zutena egiten zuten beraiek euskaraz egin zezaten. Orain egoera antzekoa ikusten du. Bere bealunaldikoei euskaraz egitea asko kostatzen zaiela dio. Euskaraz abestu arren, erdaraz egiten zuten kantukideen artean. Bere adineko mutilek euskaraz neskek baino gehiago egiten zutela dio.

14. Lurgabe musika taldearen diskoaren grabaketa

- **Erref:** EGB-135/017
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:31:52. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Angelita Zabaletak musika aldetik prestatzen zituen. Modako kantak aukeratzen zituzten. Diskoa Madrilén grabatu zuten, Xabier Gereñtorekin. Maria Luisa Zubiaurre eta Begoñak Badiolarekin grabatu zuen diskoa. Gitarrarekin *Balle* laguntzen zien, bandako zuzendari izandakoak. Patxi Zabaleta (Angelaren anaia) ere beraiekin joan zen grabaketara. Jorge taxilariarekin joan ziren.

15. Lurgabe musika taldearen ibilerak

- **Erref:** EGB-135/018
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

800 diskatik gora saldu zituzten. Iparraldetik ekartzen zituzten diskak garai hartan. Etxe askotan ez zen diskak entzuteko aukerarik izaten. Irrati emisora batean, kantuen zerrendan lehenengo egon ziren astebetetz. Muxikara kantura joan zirenekoa kontatzen du (Benito Lertxundirekin jo zutenekoa). *Trio Unai* rekin ere harreman handia izan zuten.

16. Eibarko dantzalekuan kantu lehiaketak Imanol Urbietarekin

- **Erref:** EGB-135/019
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eibarko Nahia dantzalekuan kantu lehiaketak antolatzen zituzten eta parte hartzen zuten; final batera pasatu ziren. Imanol Urbietak pianoarekin laguntzen zien parte hartzaileei. Imanolen etxean entsegua egin zutenekoa kontatzen du.

17. Kantari taldeak; Oskarbi

- **Erref:** EGB-135/020
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Arrasaten ere antolatzen ziren lehiaketak. Urretxindorrek, Ameslariak... Bergarako taldeak aipatzen ditu. Oskarbikoekin harremana izan zuten. Juan Igartuaren abesbatza ibili zen. Oskarbiaren kantak abesten zituzten.

18. Arrieta anai-arrebak Odeoian kantuan

- **Erref:** EGB-135/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:46:32. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Anai-arrebek Odeoian "Guk euskaraz, zuk zergatik ez?" eta "Nagusituko gara" kantak abestu zituzten jaialdi batean. Juan San Martinek eta Azpeitiko musika bandako zuzendariak moldaketa egin zieten.

19. Estitxurekin Elgoibarren

- **Erref:** EGB-135/024
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:50:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Estitxuk Elgoibarren jo zuenekoak kontatzen du, beraiek ere abestu zuten eta.

20. Soraluzeko nesken musika taldea

- **Erref:** EGB-135/025
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:50:18. **Bukatu:** 00:51:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Soraluzeko bost-sei neskak taldea izan zutela kontatzen du. (Blue Bell taldea). Ile horiak, denak berdin jantzita... Bera baino zaharxeagoak zirela dio.

21. Emakumeek lanari eta kantatzeari laga ezkondukoan

- **Erref:** EGB-135/026
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:52:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bere garaian ohikoa zen ezkondukoan lanari lagatzea, baita kantatzeari lagatzea ere. Ezkon bidaian haurdun geratu ezean, emakumeak ez zuela balio esaten zen.

22. Estitxu eta Ez Dok Amairu

- **Erref:** EGB-135/027
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:52:33. **Bukatu:** 00:54:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Estitxuk "Agur Maria" zela abestu zuen gogoratzen du. Ez dok Amairu ikustera beste herri batzuetara joaten ziren. Edurne Lasarekin Lurdes Iriondorengana joan zirenekoa kontatzen du.

23. Musika pedagogian prestakuntza eginda, ikastolara

- **Erref:** EGB-135/028
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:54:12. **Bukatu:** 00:59:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolan noiz eta zela hasi zen kontatzen du. Ikastoletako irakasleak oso prestatuta zeuden haur hezkuntzan. Magisteritza titulaziorik ez zutenak legez babesteko, musika pedagogian prestakuntza eman zien irakasle batek. Bera ere animatu egin zen eta bukatu zuen bakarra izan zen. Ikastolan praktikak egin ostean, bertan hasi zen lanean.

24. Ikastolari laguntzeko boluntarioak soberan

- **Erref:** EGB-135/031
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:07:28. **Bukatu:** 01:09:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Guraso batzuek egunkariak biltzen zituzten astero eta horiek salduta dirua ateratzen zuten. Taberna jartzen zuten. Boluntarioak soberan egoten zirela dio.

25. Ikastola irakasle bila

- **Erref:** EGB-135/034
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:16:45. **Bukatu:** 01:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolakoak irakasle bila ibiltzen zirenekoa kontatzen du. Beste pertsona batzuen tituluak ere erabiltzen zituzten beharrezkoa zenean.

26. Ongarri eta "Bihar-Dana" elkarteak

- **Erref:** EGB-135/037
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:22:30. **Bukatu:** 01:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

Ongarri elkarteak Olentzeroren etorrera antolatzen zuen eta ume zeneko argazkia dauka. Maala ingurua zelakoa zen azaltzen du. Anaiak euskal dantzan ibili izan ziren Ongarrikoekin. "Bihar-Dana" elkarte gastronomiko eta musikala aipatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com